

«Bizitzak momentu bakoitzean eskatzen didana egiten dut beti»



AFRIKA
BIBANG
Abeslaria

hirulka

120. zenbakia

2018ko martxoaren 15etik 21era arte

Azken lau urteotan ugaritu dira idi-proben aurkakoen eta kontrakoen eztabaidak Uribe Kostan; Erandiogoikoan idi bi drogatuta hil izanak bazterrak nahasi ditu ordutik.

Idi-demak kentzeko diote albaitariek



© AITOR GARMENDIA | ASKEKINTZA

ANJEL FIGUEROA | 4

BOST URTE BETE DIRA HIL ZENETIK

Etxean hil zen Algortako preso gaixo larria, kartzelaldi arinduan. Garai horietan bizi izandakoez berba egin digu bere amak.

SOPELAKO INSTITUTU BERRIA NOIZKO? | 5

KONPONBIDEAK LUZERA JOKO DUELA DIRUDI

Zipiriñeko gurasoek uste dute ez dela aurrerapausorik eman; Udalak, oster, laster hasiko ei ditu lurrak erosteko izapideak.

URIBE KOSTAKO TXANGO EDERRENAK | 9

AISIALDI GEHIGARRIA

Erdiko orrietan, oporretarako aukera onenak eskualdean.



ISUSKITZAKO HARIZTIA | 6

PLENTZIAKO HARIZTIA BERRESKURATZEN

Iazko udaberritik, eta Udalaren laguntzagaz, basoa eraberritzen dabilta. Espainiako Gobernuak ere diruz lagundu du proiektua.

Idi-probak, albaitar

Azken urteotan, eskualdean ugaritu dira idi-proben aldekoen eta kontrakoen arteko eztabaidak. Albaitarien elkarte batek ikerketa-txostena plazaratu berri du horren gainean. Leioako aditu bik euren iritzia eman dute.

TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ARGAZKIA: © AITOR GARMENDIA | ASKEKINTZA ►

Idi-proben gaineko albaitaritza-txostena kaleratu du AVATMAk, alegia, Tauromakia eta Animalien aurkako Tratu Txarrak Abolitzearen aldeko Albaitarien Elkarteak. 508 profesional batzen dituen elkarteak uste du lehiaketa horietan animaliei tratu txar fisikoak eta emozionalak sortzen zaizkiela. «Horrek bidegabeki eragiten dizkie mina, larritasuna eta higadura fisikoa», azaldu dute Alicia Campanero Heras txosten-egileak eta AVATMAren zuzendaritzako kideek: Jose Enrique Zaldívar Laguía, Virginia Iniesta Orozco eta Lina Sáez de Antoni. Laurek uste dute idi-demetan animaliek jasaten dituzten baldintzak ez direla bateragarriak «animalien ongizatea babestegaz». Horrenbestez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Animaliak Babesteko Legea urratzen delakoan daude.

DEBEKUAK ETA SALBUESPENAK. Campanerok gogorarazi duenez, 1993ko legeak debekatzen du «animaliei tratu txarra ematea edo arrazoirik gabeko oinaze edo mina eta larritasuna sor diezaikeen edozer gauza egitea», baita «alkohola, drogak

«Espezismorik» ez Jaiei arreta ipini die Askekintza animalien askapenerako taldeak. Manifestua, argazki-bilduma eta dokumentala kaleratu ditu, animaliak errespetatzeko eskatuz.

edota farmakoak ematea ere, edo kalte fisikoak edo psikikoak sor diezazkieketen edonolako maneiu artifizialak egitea, lehiaketaren batean emaitza hobeak lortzeko izan arren».

Halere, albaitari-taldea kexu agertu da «tratu txarren gaiak proposatzen diren bakoitzean» salbuespenak suertatzen direlako. Esaterako, kritikatu dute orain dela 25 urteko legetik kanpo geratu zirela idi-probak: «Euskal kirol-ospakizunak egiteko oinarritzat etxeko animaliak erabili behar direnean, Eusko Jaurlaritzak, dekretu baten bidez, araudiz zehaztuko ditu bete behar diren baldintzak eta betebeharrak». Hala, AVATMAk arbuiatu du horrelako lehiaketa-motetan animaliak erabiltzea eta «modu bidegabean sufriaraztea, soilik herriko ohitura delako». Horregatik, animaliak babesteko legeak aldatzeko eskatu dute, idi-demak bertan behera gera daitezen.

«SUFRIKARIOAREN» IBILBIDEA. Albaitari-elkartearen ustean, idien sufrimendua ez da hasten idi-deman parte hartzeko plazara heltzen direnean, askoz lehenago baizik. Izan ere, gogorarazi dutenez, zezenak jaio eta urtebetera zikiratzen dituzte. Ostean, beste sei edo zazpi urte ematen dituzte lehiarako prestatzen. Txosten-egileek salatu dute idiek egunero bost kilometro edo gehiago ibili behar izatea, «udan eguzkipean eta beroagaz eta neguan euripean eta hotzagaz». Azaldu dutenez, entrenamenduak egiten dituzte traktore-gurpilakaz, zakua-kaz, enborrakaz... harriagaz hasi aurretik. Salatu dutenez, «baserrietan egiten diren entrenamendu horietan animaliak



ien begietatik so

kolpatu eta zigortzen dituzte gupida barik, animalariari sufri-mendua sortuz». Gainera, kexu agertu dira saio horietan «kontrolrik eta lekukorik ez dagoelako».

ESTRESAREN KAUSAK. Campanero, Zaldívar, Iniesta eta Sáezen ustean, estresa da idiek jasaten duten arazo nagusietako bat. Ingurumen-kausen artean, aipatzen dute idi-dema egingo den lekurainoko garraioa. Albaitariak estresari leporatzen dizkiote gerta daitezkeen pisu-galera, odol osagaietako aldaketak eta kalte fisikoak. Txostenean, gaineratu dutenez, «lehiaketetan diru asko mugitzen da eta apustuak egitean oso garrantzitsua da idien pisua». Hala, nabarmendu dute ohikoa dela egun bat edo bi elikagai eta ur barik uztea, probaren aurretik. Salatu dutenez, horrek lipidoen eta glukogeno hepatikoen maila jaits dezake, hain zuzen animaliak behar dituen lehengaiak, energia sortzeko ahalegin fisikoa egitean. Bestalde, kritikatu dituzte azoketan, festetan edo idi-deman bertan animaliek pairatzen dituzten zaratak, musika, oihuak, megafonia eta argiak, idiek gizakiek baino entzumen-ahalmen eta sentsibiltate handiagoak dituztelako. Modu berean, salatu dute idiei akuilua iltzatzen dietela muturrean, errotoletan, apatxetan, ipurmasailetan, bizkarrean... zauri mingarriak eraginez. Azpimarratu duten beste arazo bat da «behartutako ariketan» idiak labaindu egiten direla, hanketako artikulazioen kalterako. Txostenak salatu egin du idiak dopatzea eta gogora ekarri ditu horregatik hil diren animaliak. ◀



Probak ulertzeko hiztegi txikia

Idia

Zezen zikiratua da idia. Antzina, euskal baserritarrek lurra lantzeko eta garraiorako erabiltzen zuten. Harrobietan ere ohikoak ziren, harritzarrak garraiatzeko. Idi-probetan jarduten duten idien pisua 500 eta 650 kilo artekoa izaten da, baina badira salbuespenak, 1.450 kiloraino. Halere, Bizkaian ohikoa da altuera txikiagoko eta pisu gutxiagoko idiak erabiltzea.

Harria

Idi-pareek mugitu behar dituzten harriak 1.500 eta 4.000 kilogramo artekoak dira. Halere, Bizkaian pisu gehiagoko harriak daude; berbarako Gernikan eta Mungian 4.500ekoa erabiltzen dute. Pisutsuena Berriatuan dago, 5.250 kilokoa, baina ez dute 1950etik mugitu. Gaur egungo lehiaketetan harri txikiagoak aukeratzen dituzte, jendeak plaza asko egitea gurago duelako, «ikuskizuna» handiagoa delakoan. Harriak errektangularrak dira, apur bat estuagoak aurreko aldean. Bertan zulo bat daukate, katea sartzeko.

Akuilatzailea

Idiak gidatzen dituen pertsona da; idi-probalari edo itzain ere esaten zaio akuilatzaileari. Teorian «laguntza» eman behar dio idiari edo idi-pareari, atzetik akuiluaz edo metalezko punta zorrotza duen makilaz zirikatuta.

Dema

Idi batek edo pareak harri bat aldats bako plazan alde batetik bestera mugitu behar du, harkoskor biribilez osatutako zoruaren gainean. Idi-demaren jatorria aspaldikoa da, baserriko eta harrobietako beharretatik erronka eta apusturako jokoa sortu zenekoa. Lehen aipamen idatzia 1847an dago jasota, Juan Ignacio Iztueta historialariaren *Guipuzcoaco Condaira* liburuan.

Iltzea

Plazaren luzera 22 eta 28 metro bitartekoa da eta distantzia osoa zeharkatzeari plaza, iltzea edo untza esaten diote. Probaren amaieran iltzeak, zintak eta zentimetroak zenbatzen dira.

Ustela

Harriaren alde bertikaletako bat plazako alboetako marretatik ateraz gero, ustela da. Halakoetan idiek atzera egin behar dute, harri osoa marraren atzean geratu arte.

Iritzi kontrajarriak: idi-proben aldekoak eta kontrakoak

Orain dela lau urte, idi bi hil ziren Erandiogoikoan, Andra Mari jaietako idi-proban lehiatzen zuten bitartean. Bizkaiko Foru Aldundiak nekropsiak egin zizkien animalien hilotzei eta «anfetaminakaz dopatzeagatik hil zirela» ondorioztatu zuen. Horren harira, ugaldut egin dira eskualdean kolektibo animalisten protestak, batez ere Leioan.

ALDE. Leioako Euskal Kirol Zaleak elkarteko presidente da Jose Luis Bilbao. 1960ko hamarkadatik dabil idi-proben eta herri-kirolen munduan. Etxean baditu ardiak, astoak, ahuntzak eta txakurrak, «eta sekula ez dut bat ere jo». Argi eta garbi utzi du «animaliei tratatu txarrak ematearen aurka eta idi-proben alde» dagoela, baina «daborduko aspertuta» dagoela arrazoiak emateaz. Kontzientea da abeltzain denak ez direla beti bere modukoak izan: «Egon dira urteak idiek tratatu txarrak jaso dituztenak. Ahaleginak egiten gabiltza federaziotik eta elkartetik horrelakoak guztiz kentzeko». Modu berean, dopina «oso latza» dela iritzita, erabat aurka dago. Zigorrek gogortzearen alde egiten du: «Horretarako beharrean gabiltza, ez berba egiten». Bere ustean, idi-demen aurkakoei abantaila dute, «sekula idi bat ere ikusi ez dutenentzat mezu erraza saltzen dutelako eta jendeak sinetsi egiten dielako». Bilbaok gogorarazi du animalienenganako tratatu txarren kontrako elkarteak 10.000 sinadura bidali zituela Internetez, Leioako udaletxera: «Mundu osoko sinadurak ziren, baina Leioakoak zenbat? Hamabost». Joan den irailean emakumeek gidatutako idi-probak egin zituzten eta probalekua «gainezka» egon zen; «idiek jaso zuten tratatu ona, beti legez». Onartu egiten du zarata izaten dela horrelakoetan, «baina nik behean daukadan gatzetxean ere kristoren zarata izaten da eta hori barkatu egin beharra dago». Bitartean, animalistek elkarretaratzea egin zuten bulebarrean «eta zazpi pertsona baino ez zeuden: lotsagarria da», iritzi dio.

KONTRA. Rubén Belandia animalienenganako tratatu txarren kontrako Leioako elkarteko kidea da, Esmatu Leioako zinegotzia izateaz gainera. Belandiak uste du «ospe handiko» AVATMA albaitari-elkarteak txostena aurkeztu ostean egoera oso argi dagoela: «Idi-probetan tratatu txarrak daude, ukaezina da. Beraz, horrelako probak desagerrarazi beharra dago. Horren ordez bultzatu daitezke harria eroateko gizon- eta emakume-probak, edo bestelako herri-kirolak, animaliei minik egin barik».

MARI CARMEN FERNANDEZ | Anjel Figueroa preso politiko getxoztarraren ama

«Kartzelatik irten zenean ez zuen bere burua aurkitzen»

Hilaren 14an 5 urte bete ziren Anjel Figueroa preso politikoa espetxealdi arinduan amaren etxean hil zenetik. Gaixotasun larri eta sendaezina zeukan. Bere ama Mari Carmen Fernandezegaz berba egin dugu.

IKER RINCON MORENO ▶

Anjelek 14 urte eman zituen kartzelan larriki gaixo. Zertan eragiten zion gaixotasun horrek ziegako egunerokotasunean? Epilepsia leun bat zeukan, frantsesez *petit mal* izenagaz ezaguna dena. Txikitatik zegoen diagnostikatuta, eta Gurutzeta ospitalean jarraipena egiten zioten. Krisiak eduki baino lehen minak izaten zituen, eta horrek kontrolatzea lortzen zuen; inoiz ez zuen konbultsio-krisirik izan. Hori dela eta, 1994an bera atxilotu zutenean, ez geneukan beldurrik gaixotasunagatik, ordura arte dena kontrolatuta baitzegoen. Asteaz behin ordu erdiz ikusten genuen Anjel kartzelan, kristal baten atzean, eta hasieran ez genuen ezer nabaritzen. Ondo zegoela zirudien eta mentalki oso indartsu zegoen. Baina, denbora aurrera joan ahala, Palentzian zegoela, bere kideek zerbait arraro igarri zioten. Gerora, Kordoban, lehenengo krisiak eduki zituen, kide denen aurrean. Horixe izan zen lehenengo inflexio-puntua, eta asko kostatu zitzaigun lortzea Anjel Gurutzetara eroatea medikuek ospitalean artatu zezaten.

Ez zuen behar besteko arreta medikurik jasotzen, eta azkenean ebakuntza egin behar izan zioten. Zelakoak izan ziren hurrengo urteak? Espetxerata zegoenean Gurutzetara eroan zuten hainbat bider, eta lehenengoan ez zioten inolako azterketarik egin. Anjelek bazekien horrela ezin zuela jarraitu kartzelan eta, azkenean, medikuek ebakuntza egiteko aukera eskaini zioten, 2006an. Hasiera batean operazioa ondo atera zela zirudien, baina ebakuntza-oste batera eroan beharrean, kartzelara eroan zuten zuzenean, buruan bendak zituela. Lobotomia bat egin zioten! Gerora jakin izan genuen epilepsia kasuetan ebakuntza egitea azken aukera dela, eta aurretik hainbat tratamendu egin behar direla; baina, Anjelen kasuan zuzenean jo zuten operaziora. Hurrengo urteak izan ziren okerrean...



Anjel Figueroaren amak gutunez, poemaz eta argazkiz betetako karpeta bi gordetzen ditu. © M.C.FERNANDEZ

«Anjelek 20 ordu ematen zituen ziegan egunero, eta krisiak edukitzen zituenean ez zen ezertaz gogoratzen. Kideak izan ziren horren berri eman zutenak»

Zelan bizi izan zenuten Anjel kartzelan egon zenekoa? Anjelek beti ematen zigun indarra. Hura ondo ikusteak bidaia egitera animatzen gintuen. 1997an, baina, bera bisitatzera gindoazela istripu larri bat eduki genuen: nire ama hil zen; eta nire aita, senarra eta hirurok oso larri amaitu genuen. Hala ere, oso argi geneukan Anjel ikustera joaten jarraitu behar genuela, kosta ahalakosta. Sufrimendu handiena barruan zegoenak zeukan.

2008an Langraizeko kartzela utzi eta etxean egon zen espetxealdi arinduan. Zelakoak izan ziren momentu horiek? Ia ia kartzelan baino okerrago. Oso txarto zegoen, ez zuen bere burua aurkitzen. Astero joan behar ginen ospitalera, eta etxean zegoela lurrera jausten zen askotan, krisiak jota. Oso independentea zen, gauza denak egiten zituen, baina ezin zen bakarrik bizi, edozein momentutan jausi zitekeen. Hasieran hirugarren gradua onartu zioten, idazki bat sinarazi ziotelako; baina «legeak hala aginduta» sinatu zuenez, fiskalak eta epaileak aukera hori ezeztatu eta espetxealdi arindua ezarri zioten, hil zen arte. ◀

Ezagutu saitzazu!!!

Yes

Arreata, Leioa, Bermeo, Sopela

Kalitatea

ERASMUS+

BAI

KIVA

Algora

San Nikolas IKASTOLA

SAN NIKOLAS IKASTOLA
(Auzoa aspi. 15)
94 430 54 78

www.sanikolas.eus

GetxoGas

REPSOL

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindagia
- GNG tailerra
- Solaguren Jatetxea

944 301 500

GetxoGason Euskararekin bat!

Getxo eta Berango artean

SOPELA | Institutu berria noizko?

Konponbideak luzera joko duela dirudi



Kalitatzeko hezkuntza baten alde. Barrakoirik ez! aldarrikatu zuten Zipiriñeko ikasleek, gurasoek, irakasleek eta langileek. HODEI TORRES

Zipiriñe ikastetxeko ikasleen aita-amek uste dute ez dela pausorik eman zentroak daukan leku-arazoa konpontzeko. Udalak, oster, hainbat orube begiratzaren dabilela dio; laster hasiko ei dituzte lurak erosteko izapideak.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Zipiriñe ikastetxeko dozenaka guraso, eskola-ume, irakasle eta langile berriro irten ziren kalera, barikuan, martxoaren 9an. Iraupen gurasoen elkarteak deitu zuen mobilizaziora; hezkuntza-zentroak daukan leku-gabeziari aurre egin guran, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak barrakoi bat instalatu zuen joan den urriaren akabuan, eskolako patioan. Gurasoen ustez, hori ez da irtenbidea arazoa konpontzeko. Orain dela lau hilabete lehenengo manifestazioa egin zutenetik, «aurrerapausorik ez da egon», kritikatu dutenez.

Oposizioko alderdi politikoek hainbatetan aurkeztu dituzte proposamenak. Gauza bera egin du EAJren eta PSE-EEren Sopelako Udal Gobernuak, azkenean proposamen berri bat eskainiz, 2018ko aurrekontuen pentsutan. Udalak bere jabegopeko lursail batzuk saltzea erabaki du, eta salmenta horregaz beste lursail egokiago batzuk erosi gura ditu, institutu berri bat ipini ahal izateko; Iberre institutuak ere espazio arazoak baititu, akaso

Abaroko proiektua

Hezkuntza-gune berri bat eraikitzeko Udalak lurzoruak erosi behar dituela uste du Sopelako EH Bilduk, baina «udal-ondarea salgai ipini barik». Euren ustez, «Abaro aldeko lursailen gaineko plan partziala egiteak lehentasuna dauka, Iberre institutua handitu ahal izateko eta eremu horretan babes ofizialeko etxebizitzak eraiki ahal izateko». Abaroko proiektua «alboratzea» leporatu dio EH Bilduk Udalari.

larriagoak. Eraikin berriak konponduko luke hezkuntza-zentro biek daukaten leku-gabezia, izan ere, gaur egungo Iberre institutua eskola bihurtuko litzateke. Udal-aurrekontuak otsailaren 19an onartu egin ziren.

LURSAILAREN ZAIN. Bitartean, Sopelako Udalak gorrarena egin du Zipiriñeko gurasoen kexuen aurrean; dirudienek, aurrerapausoak ematen dabilta agintari sopoloztarrek. Gonzal Hermosilla alkateak adierazi duenez, «hainbat lursail begiratzaren gabilta. Gauzak horrela, hurrengo asteetan, aurrekontu berriak indarrean sartzen direnean, 5.000 eta 10.000 metro koadro arteko orubea erosteko pleguak lantzen hasiko gara. Lur horiek Eusko Jaurlaritzari utziko dizkiogu; izan ere, erakunde horrek dauka eskumena institutu berria egiteko».

Hezkuntza Sailean, oster, ez dira horren baikorrak, institutu berria noizko egongo litzatekeen galdetuta. Sopelan institutuaren zabalkundea egiteko konpromiso osoa adierazi zion Hezkuntza Sailak Udalari. Baina horretarako orubea behar dute. «Begira gaudela lursaila noiz utziko diguten», aipatu dutenez. Eusko Jaurlaritzan jakitun dira «Sopelan dagoen premiaz»; baina epeez berba egiteko «goizegi» deritzote. Hezkuntza Saileko iturriek zehaztu dutenez, prozesu horiek luzeak izaten dira: «Adibide bat ipinita, orubea jasotzen dugunean hasten gara erredakzio-proiektua egiten». ◀

Saltsan



AMAIA
ARRIAGA
LEJARRAGA
Herri-langilea

Emozioak gainezka egin zueneko

Joan den asteko eguna berezia izan zen. Eguenetan nik ohitura daukat lagun emakume batzuekin elkartzeko, baina oraingoan ez da makala izan elkartzaren lagun taldea! Batzuk ezagunak nituen. Beste milaka asko lehen aldiz ikusi edo sentitu nituen nire inguruan, «Gora borroka feminista!» oihuka. Eta emozioak gainezka egin zidan. Hunkitu egin ninduen Euskal Herriko Mugimendu Feministaren indar erakustaldiak, eta oraindik ere hunkituta nago diskurtso feminista sendoa atera dugulako kalera. Eredu neoliberal hau auzitan jarri, munduan egoteko modu desberdinak aintzat hartu eta indarkeria sexista, arrazista eta klasista gainditzeko eredu osoa aldatu beharra aldarrikatu dugu ozen.

Egungo gizarte-eredua eta eredu ekonomikoa berraztertutako beharra plazaren erdira ateratu du Mugimendu Feministak martxoaren 8 honetan, diagnostiko feminista batetik abiatuta. Eta ezer ez da berdina izango, Mugimenduak prestigio-hierarkian gora egin duen heinean. Harrotasunez aldarrikatu dute feminismoa gazte-gaztetxoek zein helduek, eta hor badago jauzi bat. Zenbat aldiz ez ote dugu entzun «ni ez naiz ez matxista ez feminista», feminista izatea matxista izatearen parekoa bailitzan!

Horregatik, berebiziko garrantzia ematen diot geure burua feminista aldarrikatzeari, norabide horretan aurrera egiteko abiapuntu dugulako. Eta goraipatu egin nahi nuke Euskal Herriko emakume feministek gure auzo, herri eta hirietan urteetan egindako lana, ongarriritutako lurrean ernamuindu direlako M-8ko plantoa, mobilizazioa eta aldarria. Ez da berez sortu, ez da kasualitatearen emaitza izan eta seguru fruitu gehiago ere emango duela horrek.



Ttipi-ttapa

**IRATXE
MARTA
LINARES**
AEK-ko irakaslea

Euskaraldia, ahoa eta belarriak prest

Azken urteotan euskalgintza norabide aldaketa egitera behartuta egon da. Gero eta handiagoa da euskararen erabilerarekin dagoen kezka. Ematen du ez dugula asmatzen ezagutzatik erabilerara zabaldu den arroila lotzeko zubia zelan eraiki; hizkuntzaren ezagutza, hezkuntza-sistema eta euskaltegi-sareari esker, orain dela hamarkada batzuk baino bermatuago daukagun arren.

Urte batzuetatik hona asko izan dira bai auzoka, bai herrika, bai eskualdeka normalizazioan egin diren saiakerak. Erabilera helburu, Berbalagun taldeak, «koadrilategi» proiektua, Lasarte-Oriako «Irten Armairutik»... abiarazi dira, arrakastatsu eta itxaropentsu.

2018an Euskal Herriko bazter guztiak 11 egunez aktibatzea izango dugu erronka. Euskaraldia datorkigu. Hizkuntza-ohiturak astindu eta ohiko harremanetan euskara gehiago erabiltzeko ariketa proposatzen digu.

Uribe Kostara ere heltzen ari den olatua da Euskaraldia. Hainbat herritan taldeak elkartzen hasi dira, lehenengo bilerak egin dira, aurkezpenak, aktibazio saioak... Baina euskaldun guztion mugimendua behar du honek. Ahobiziz, Belarriprest ez eta Irribiziz (Getxoren kasuan) bete behar ditugu auzoak eta herriak: Ahobiziek lehenengo hitza beti euskaraz egiteko eta Belarriprestak beti euskaraz entzuteko, eta ahal denetan, erantzuteko. Euskaraldiaren gakoa norbanakoen parte hartzea izango da, azaroaren 23tik abenduaren 3ra, 11 egunez, Ahobizi edo Belarriprest ikurra soinean eraman, eta familian, lagunartean, lanean, eskolan, dendetan... hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa egingo dugu. Horregatik, adi, seguruenik hurrengo egunetarako zerbait antolatuta egongo da zure herrian. Bertara hurbildu eta zure ekarpena egin.

PLENTZIA | Herri-basoak berreskuratu guran

Isuskitzako hariztia zaharberritzen hasi da



Bertako zuhaitzak landatzeko mintegia sortu dute Isuskitz mendian. © PLENTZIako UDALA

Plentziarrek mendez mende erabili izan dute Isuskitzako egurra etxeak eta ontziak egiteko. Iazko udaberritik, eta Udalaren laguntzagaz, basoa eraberritzeko pausoak ematen hasi dira. Besteak beste, ezkurak landatu dituzte bertan.

IKER RINCON MORENO ▶

Isuskitz mendiko hamabost bat hektareako hiru lursail dira gaur egun mantentzen diren herri-basoen aztarna bakarrak Plentzian. Hiribildua 1299an sortu zenean, hainbat herri-baso zabal zeuden horri erantsita, eta mendeetan, inguru horietako hariztiak erabili zituzten plentziarrek etxeak eta ontziak egiteko. Gaur egun, ordea, baso zabal horiek ia desagertuta daude eta urbanizazioek hartu diete lekukoa. Hori dela eta, herri-jabetzakoak diren lursailen balio berria emateko zenbait egitasmo martxan ipini ditu Plentziako Ingurumen Zinegotzigoak. Proiektu horien artean dago «Isuskitzako Baso Historiko-Botanikoa» izenakoa. Espainiako Ingurumen Ministerioak 5.732,45 euroko diru-laguntza emango dio hariztia zaharberritzeko egitasmo horri.

2017ko udaberrian hiribilduan antolatutako I. Jardunaldi Ekologistak izan ziren abiapuntua. Haietatik sortu ziren lantaldeetako batek Tranpaerreka-Isuskitzako hariztia zaharberritzeko helburua ipini zion bere bu-

ruari. Gazteei lan-mundurako sarbidea errazten diharduen Bihurtuz elkargoarengana jotzea izan zen hurrengo pausoa: haiek sortu zuten lehenengo mintegia Tranpaerreka inguruan. Ondoren, eskolako umeek ezkurak landatu zituzten euren ikasgeletan, eta haietatik jaiotako haritz-kimurak Tranpaerrekara eroan zituzten, han sortutako mintegian landatzeko. Aurtun, aldiz, lursail horren mugak zehaztu zituzte.

Ikusi ahal izan dutenez, espezie inbaditzaileak (eukaliptoak, akaziak...) hartuta daukate ia eremu osoa. Ikasturte honetan, gainera, beste bost mintegi sortu eta bestelako espezieak landatuko dituzte, barbarako lizarrak, gaztainondoak eta arteak. Modu berean, bidezidorrak zabaltzen dabilta, garai bateko baso-pistak aprobetxatuta, aldiko landaketak egin ahal izateko datozen urteetan.

ARBASOEN OHITURARI JARRAIKI. Erdi Aroan haritzak mintegietan ereiten eta jagoten zituzten, ondoren aldatu eta inautzeko behar ziren egur-atalak eskuratzeko. Udala zen herri-jabetzako baso horien kudeaketa ardura zeukana, eta 1508tik aurrera, hurrenez hurrengo ordenantzetan, basoaren eraginkortasuna eta auzokideen arteko berdintasuna bermatuko zituen araudia taxutuz joan zen. Lortutako enborrak mendi magalean behera garraiatzen zituzten, harik eta itsasadarrera heldu arte, eta ondoren hartatik bideratzen ziren hiriraino. ◀



Mintegiak

Bihurtuz elkargoaren ekimenez, Plentziako herri-ikastetxeko ikasleek ezkurak landatzeko mintegia sortu dute Tranpaerreka-Isuskitz inguruan. Datozen urteetan beste bost mintegi sortzea aurreikusi dute; horietan bestelako zuhaitzak landatuko dituzte, barbarako lizarrak eta gaztainondoak.

URDULIZ | Autoentzako eta motorrentzako parking publiko berria

Aparkalekua Elortzan



Aparkalekua Elortzako atzealdean eraiki dute. © URDULIZKO UDALA

Aparkaleku publikoa eraiki berri dute Urdulizko Elortza eskolaren atzealdean. Parkingean 24 leku daude eta, gainera, motorrentzako hainbat toki ere egokitu dituzte bertan. Arduradunek azaldu dutenez, proiektuaren helburua ez zen aparkalekua egitea berez, inguruko saneamendu-sarean jardutea baizik. «Leku hori arazo bat zen herriarentzat. Horregatik, eta obra hori aprobetxatuz, lursaila egokitu eta erregularizatu da aparkaleku publiko bezala erabili ahal izateko». Hasiera batean, obrarako epea lau hilabetekoa izatea aurreikusita zegoen. Baina Elortza esko-

Aurrekontua

Aparkaleku publiko berria eraikitzeko aurrekontua 101.041,85 eurokoa izan da, zergak kontatu barik. Udalak horretarako diru-laguntza jaso du Aldunditik.

la handitzeko obren ondorioz, espero ez ziren lan batzuk egin behar izan zituzten, saneamendu-sarean eta sare elektrikoan. Hori dela eta, obrak amaitu ahal izateko beste sei aste gehiago behar izan dituzte. Urdulizko Udalak aparkalekuak areagotzeko diru-laguntza jaso zuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri-administrazioaren eta Erakunde Harremanetarako Sailaren eskutik. Hala, Udalak 30.236,44 euroko diru-laguntza jaso zuen Aldunditik, maiatzaren 12an; baina, azaroan kantitate hori handitu egin zen beste 12.109,39 euroan. Denera, aurrekontua 101.041,85 eurokoa izan da, zergak kontatu barik. ◀

PLENTZIA | Martxoak 17, zapatua

Putxera Eguna heltzear dago

Ohi den legez, udaberria ate joka dagoe-la, Putxera Eguna egingo dute Plentzia hiribilduan. Aurten, horretarako data hilaren 17a aukeratu dute, zapatua. Goiz osoko egitaraua prestatu dute egun horretan auzotar denen gozamenerako. 10:30ean emango diote hasiera ekimen gastronomikoari, izan ere, ordu horretan zabalduko dute norgehiagokan izena emateko aukera. Handik ordu bi eta erdira, 13:00etan, kalejira hasiko dute trikitipoteaz, kalerik kale. Bitartean, putxera lehiaketaren parte-hartzaileak jatekoa prestatzen ibiliko dira, den-dena prest izan beharko dutelako lapikoak aurkeztu ahal izateko, 13:00ak eta 14:00ak bitartean. Eguerdiko 14:30ean, ostera, putxeren sariak banatuko dituzte, bertaratutako herritar denen aurrean.

GORLIZ | Izen-ematea zabalik

Indaba-lehia, hilaren 24an

Martxoaren 24an egingo dute VIII. Indaba-lehiaketa Gorlizen, zapatuan. Horretan parte hartu gura dutenek aldeztu aurretik izena eman beharko dute, hilaren 20a baino lehen, kultur etxean. Egunean bertan ere horretarako parada egongo da. «Ohiko indabak» kozinatu ahal izango dira, «ahal bada Gernikakoa edo tolosarra». Hala, ezin izango dira indaba zuriak eta verdina motakoak erabili. Ostera, ohiko osagarriak onartuta egongo dira, berbarako txorizoa, odolostea, urdaiazpikoa eta saiheskia. Lehiaketa goizeko 08:00etan hasiko da, Itsasbide kalean. Aldez aurretik izena eman ez dutenek, zapatu horretan bertan izango dute horretarako aukera, 10:30etik 11:30era. Parte-hartzaile denek bost euro ordaindu beharko dituzte.

Sartu gure webean
www.cianoplan.es

kartelgintza

inprimategia

kopisteria

cianoplan
GLOBAL PRINTING

ZINEGOAK | Getxon, Leioan eta Sopelan ikusbide

Hausnarketarako bidea



Besteak beste *Pria* film laburra emango dute Algortako Gauegun Gaztelekuan. © ZINEGOAK

Uribe Kostako emanaldiak

Getxo

Martxoak 15, eguna
20:00 *Porkupine Lake* film luzea, Algortako kultur etxean. Sarrera, doan.

Martxoak 16, barikua

18:00 *Pria, Tailor, Little Potato, Tarde para el recreo* eta *Princesa de hielo* film laburrak, Algortako Gauegun Gaztelekuan. Sarrera, doan.

Leioa

Martxoak 21, eguaztena
20:00 Film laburren emanaldia, Kultur Leioan. Sarrera, doan.

Martxoak 22, eguna

20:00 *Hoy partido a las 3* film luzea, Kultur Leioan. Sarrera, doan.

Sopela

Martxoak 22, eguna
19:30 Film laburren emanaldia, Kurtzio kultur etxean. Sarrera, doan.

Informazio gehiago: zinegoak.com

Bilboko LGTBI zinema-jaialdia otsailaren 19tik martxoaren 4ra arte egin zuten; ekitaldi nagusiak amaituta, hilabete honetan, Hego Euskal Herriko 40 udalerritar iritsiko da Hedapenak zikloa. Besteak beste Getxon, Leioan eta Sopelan proiektatuko dituzte Zinegoak jaialdiko pelikulak.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Zinegoak jaialdiaren lana zerbaitegatik nabarmendu bada azken urteotan, Hedapenak zikloaren alde egin dako apustuagatik izan da; hau da, Bilbotik harago, ahalik eta udalerrri gehienetara zabaltzeko erronka. Aurten 40 herritara zabalduko da jaialdiaren egitaraua. Horrek esan gura du jaialdiak martxoan jarraitzen duela, eta hilabete eta erdi baino luzeagoko jardura bihurtu dela. Horren guztia- ren berri eman digu Zinegoak jaialdiko komunikazio-ardura- duna den Julen Nafarrate Aurrekoetxea berangoztarrak.

Zelako harrera eduki du aurtengo Zinegoak jaialdiak? Oso pozik gaude. Alde batetik, jende kopuruari begira, urtez urte gero eta lagun gehiago erakartzen ditu jaialdiak; zinema onaz gozatu gura duen jendea etortzen da emanaldietara. Bestalde, 40 gonbidatutik gora egon dira; horiekaz aukera izan dugu askotariko gai lantzeko. Esaterako, Amina Seboui tunisiarrak bere herrialdean LGTBI komunitateak bizi duen egoeraz berba egin zigun. Oso hausnarketa mamitsuak eduki ditugu, eta ikusleek eduki dute aukera gonbidatuakaz eztabaidatzeko. Emankorra izan da aurtengo edizioa.

Aurreikusitako emaitzak lortu dituzue? Bai. Sobera gaingitu ditugu aurtengo aurreikuspenak. Ikusteke dago oraindino Hedapenak zikloak zenbat ikusle erakarriko dituen, baina Bilbo- ko jaialdiak izandako emaitzak oso pozik gaude.

Aurten hamalau urte bete ditu jaialdiak. Zeintzuk dira orain arteko lorpenak? Zinegoak jaialdiaren helburua da aniztasuna lantzea, kulturaren eta zinemaren bidez. Aniztasunaz berba egiten dugunean, sexu-orientazioa, generoa eta gorputzak dauzkagu buruan; hau da, guretzat aniztasuna aberastasuna



Zinemaren bidez, begiak zabaldu gura dizkiete ikusleei

Bilboko Zinegoak jaialdiko komunikazio-arduraduna den Julen Nafarrate Aurrekoetxea berangoztarrak adierazi duenez, merezi du herrietan antolatutako saioetara joatea; izan ere, beraren berbetan, «normalean aurkitzen ez dituzten ikus-entzunezko lanez gozatu ahal izango dute ikusleek». Horrez gainera, «begirada zabaltzeko» aukera izango dute. «Hausnarketa sakona eta ikuspegi berria eroango dute etxera», Nafarratek aipatu duenez.

da zentzu denetan. Mezu hori ahalik eta publiko zabalago bate- ra iristea da gure xedeetako bat: kultur ekimen bat eskaintzea, baina ez edozein, baizik eta horrek zeharkako mezu bat eduki- tzea eta hausnarketarako tartetxo bat sortzea, kulturaz goza- tzen duzun bitartean.

Hasieran, LGTBI komunitateko kideak edo Zinegoak jaialdi- tik oso hurbil zegoen jendea etortzen zen emanaldietara. Ur- teakaz, ikusle horiez gainera, eduki horietatik horren hurbil ez dauden lagunak ere etortzen dira. Oso pozgarria da, aukera ematen digulako gizartean gehiago eragiteko.

Zergatik da hain garrantzitsua Hedapenak zikloa? Norma- lean, herri txikietan edo ertainetan ez da egoten aukerarik ho- rrelako edukiak jasotzeko; herriko zinemetan film komertzia- lak egon ohi dira, eta gainera, balore konkretu batzuei lotuta. Zinegoak jaialdiko pelikulak beste mota batekoak dira: ez ko- mertzialak dira, beste eduki batzuk lantzen dituzte... Oso inte- resgarria iruditzen zaigu herri txikietan ere hausnarketa hori zabaltzea, eta ahal den neurrian gure mezua helaraztea. Aur- ten, inoiz baino herri gehiagotara iritsiko gara; Hego Euskal Herriko 40 udalerritan egongo gara. Txantxetan esan ohi di- gute munduko zinema-jaialdirik luzeena garela: ia hilabete bi irauten du gure programazioak.

Zer zelako harrera edukitzen dute herrietan egindako ema- naldiek? Herri batzuetan oso harrera ona edukitzen du eta bes- te batzuetan beharbada ez dago horrenbesteko ohiturarik zine- mara joateko; oso lotuta egoten da herriaren tipologiagaz edo bertan dagoen elkartegintzagaz. Lanean gogotsu diharduen emakumeen elkarteren bat edo gaiari lotutako eragileren bat dagoen herrietan jende gehiagok parte hartzen du emanaldie- tan; gauza bera gertatzen da zinema-zikloak egiten diren le- kuetan. Hala ere, herririk herri oso ezberdinak dira emaitzak: batzuetan hamar pertsona egoten dira eta beste batzuetan 80 lagun hurreratzen dira.

Bestalde, Zinegoak jaialdiak gero eta proiektzio handiagoa dauka eta ezagunagoa da; horrek asko laguntzen du. Ondorioz, gero eta jende gehiago gerturatzen da saioetara. Bitxikerien ar- tean aipatu behar da Bilboko emanaldietara jende gazteagoa etortzen dela pelikulak ikustera; herri batzuetan, oster, na- gusiagoak izaten dira ikusleak. ◀

Bidez bide

hiruka
Gehigarri berezia

120. zenbakia

2018ko martxoaren 15etik 21era arte

Etxe ondoko ihesaldiak

Urrun joan barik goza daiteke ate joka dauzkagun opor-egunez, eskualdetik irten barik. Ondoko orrialdeetan gurean bisitatzeko moduko hamaika txoko aurkeztuko dizkizuegu; Uribe Kostako historiaz eta toponimiaz gehiago jakiteko aukera edukiko duzu, gainera.



**URDAIBAI
BIRD CENTER**
✦ ARANZADI SOCIETY OF SCIENCES

**URDAIBAI BIRD CENTERRA
BISITA EZAZU!
HEGAZTIEN NAZIOARTEKO
AIREPORTUA**



HIRUKAlagun
eta bazkideen artean
2 BONO BIKOITZ
zozkatuko ditugu!
(bi heldu eta bi umeentzako)

KOSTALDEA EZAGUTUZ

Natur eta arkitektura-altxorrez betetako ingurunean barrena

Kirolean jarduteko, naturaz gozatzeko eta eraikin historikoetan murgiltzeko aukera ematen du eskualdeko kostaldeak, Sopelatik Armintzara arte. Gainera, temperatura gozo eta atseginez egin daiteke hori dena, urte osoan.

Eskualdeko kostaldeak ingurune natural eta paisaia ederrak eta interesgarriak eskaintzen dizkio bisitariari. Sopelatik Armintzara bitartean, lurmutur ikusgarriak, kala isolatuak eta hondartza lasai zein basatiak aurki daitezke. Bertako klimak ere zeresana edukitzen du, Gorlizko eta Plentziako badian temperatura gozoez eta atseginez goza baitaiteke urte osoan. Diotenez, mikroklima bat dago bertan, eta horretaz baliatu ziren XX. mende hasieran Gorlizko ospitalea hondartzaren ondoan eraiki zutenean, mikroklima

Naturaz, kirolaz eta arkitekturaz gozatzeko eskaintza zabala du Uribe Kostako kostaldeak.

horrek eta itsasoko ildoak eskaintzen dituen propietateek gaitzen ongizatean eragina zuelakoan. Eraikin hori Gorlizko ikur bihurtu da azken hamarkadotan; hala, ikus daitekeenez, naturak modelatutako ingurunez gainera, gizakiak zizelkatutako paisaiez ere goza daiteke inguruotan: Plentziako alde zaharreko multzo monumentala, Erdi Aroko eraikinez josita; Gorlizko badia babesteko antzinako Azkorriaga gotorlekua eta kanoi-bateriak; edo arrantzaleen jarduna oroitarazteko Armintzako Arrantzaleen Etxea eta San Tomas kofradia, besteak beste. Orain dela milaka urte berton bizi izandako gizakien arrastoak ere ikus daitezke han eta hemen, Barrikako Aranbaltza aztarnategian, berbarako. Haran berdeez eta itsasoko urdinez inguratuta, eskualdeko kostaldeak askotariko kirolean jarduteko parajeak ere eskaintzen ditu, esaterako Barrikako eta Billano lurmuturrak ezagutzeko ibilbideak, Plentziako itsasadarra arraunean aritzeko eta Sopelako hondartzetako olatuetan surfa egiteko.



Barrikako itsaslabarrak

Horietan, animalia eta landare espezie askoren bizileku diren formazio geologiko berezi batzuk daude: marearteko zabalgunek. Udalerriko hiru hondartzetatik Meñakozkoa da aipagarriena, bioaniztasunari dagokionez.



Plentziako alde zaharra

Multzo Monumental izendapena jaso du bere aniztasun arkitektonikoagatik eta kontserbazioagatik. Nahikoa da kaleetan ibiltzea Erdi Aroko iraganaz eta marinel izaeraz jabetzeko. Askotariko eraikin esanguratsuak daude bertan.



Gorlizko duna fosilizatuak

Astondorako bidean aurki daitezkeen fenomeno geologiko interesgarriak dira. Harri bihurtutako hareazko pilaketa eolikoak dira. 6.000 urte baino gehiago daukate eta euskal kostalde osoko eredu bakarra dira horiek.



Armintzako portua eta kofradia

XIII. mendeko Arrantzaleen Etxea berrituta dago, museo modura (egun jakin batzuetan bakarrik zabaltzen da). Kofradia 1895koa da eta bertan beti egin da artisau-arrantza; gaur egun hamar itsasontzi daude erroldan, Armintzakoak eta Plentziakoak.

Roke Deuna 25 - Getaria. T. 943.140.143 www.saiaszgetaria.com

XV. mendeko dorretxe gotikoa!

Gerra-garaiko aztarnak: izan zirenengandik ikasteko aukera

Bilbo faxistengandik babesteko defentsa-lerroa zeintzuk eta zelan eraiki zuten ulertzeko aukera ematen du Berangon dagoen Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoak, bisita gidatuen bidez besteak beste.

Bizkaian 1936ko gerra amaitu zenetik 75 urte zirela inauguratu zuten Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoak, Berangon. Bertoko arduraduna den Aitor Miñambresen azaldu duenez, Barrikatik Muskizera arte luzatzen zen Bilboko defentsa-lerro horren historia ulertzeko beharrezko informazioa aurki daiteke museoan: zergatik eraiki zuten, zeintzuk bultzatu zuten, zein udalerritatik igarotzen zen, eraikuntzan parte hartu zuten gizonezkoen eta emakumezkoen gaineko datuak, zelakoa zen... Informazio horretaz denaz gainera, garai horretako 250 objektu baino gehiago ikus daitezke museoan, historia ulertu ahal izateko: eusko gudariak erabilitako intsigniak, agiri pertsonalak, egunkariak, aldizkariak, orduko txanponak, gerran erabilitako armak zein jaurtigaiak eta gudarien jantziak. Miñambresen berbetan, «Euskal Herrian dagoen bildumarik onenetarikoa da; bakarra da Bizkaia osoan».

Burdin Hesiaren Oroimenaren Museora bisita gidatuak zati bi dauzka: lehenik eta behin, defentsa-lerro horren historia-ren gaineko xehetasun denak aztertzen dituzte bisitariak, Berangoetako kultur etxeko beheko solairuan; han dago kokatuta museoak. Azalpen teorikoak alde batera utzita, mendira abiatzen dira, oraindino Berangon eta Sopelan aurki daitezkeen Burdin Hesiaren arrastoak ikusteko; Arenera eta Urkora eroaten dituzte bisitariak. Besteak beste metrailadore-kokalekuetan, babeslekuetan, trintxeretan eta parapetoetan barrena ibil daiteke. «Batzuk egoera onean daude, beste batzuk erorita; baina denek balio dute aurretik emandako azalpenak ulertzeko», Miñambresen dioenez. Bisitaldi gidatuaren iraupenari dagokionez, hiru ordu eta erdi eta lau ordu artean irauten du. Batzuetan daborduko jende-kopuru nahikoa daukaten eragileek eskatzen dute jarduera hori; beste batzuetan, oster, izena



Metrailadore-kokalekuak, babeslekuak, trintxerak eta parapetoak bisita daitezke, Berangon eta Sopelan.

Bisitaldi gidatua

Zapatuan edo domekan, goizez; hiru ordu eta erdi eta lau ordu artean irauten du jarduerak.

Izen-ematea

Telefonoz: 946 682 143
Idatziz: burdinhesia@berango.org

ematen duten norbanakoak osatzen dute taldea. Gutxienez hamabi lagunez osatuta egon behar du taldeak; bisitaldia zapatu edo domeka goizean egiten da, eta doakoa da.

SOPELATIK ERE BAI. Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoagaz elkarlanean, Sopelako Udalak ere egiten ditu bisitaldi gidatuak. Hala ere, argitu beharra dago ekainean izaten direla, birritan, txandakako aste-akabuetan. Irailean, Sopela Kosta Fest ospatzen dutenean jarduera errepikatzen dute. Udalerririk horretan, ordea, alderantzizko ibilbidea egiten dute: Larrabasterrako Urkoko futbol-zelaitik abiatzen dira, Burdin Hesiaren arrastoetan barrena ibili eta Berangoko museoan amaitzeko. Izena emateko Sopelako Turismo Bulegora deitu edo idatzi (944 065 519 / turismo@sopela.eus) behar dute interesa dutenek.

TXOZNA JATETXEA

Torre Barri bidea, 3
Urdullz

94 676 34 71
645 77 68 23

txozna@gmail.com
www.restaurantetxozna.es

Euskal autore-sukaldaritza.

Tamarises Izarra

Ereaga kaia 4, 1go solairua • GETXO • 944 910 005

hirulka Bidez bide

Gehigarri berezia

Aukeratu zure ibilbidea



Armintzako portua eta kofradia

Gorliz

Astondo-Billano-Ermua ibilbidea

Gorlizko duna fosilizatuak

Plentziako alde zaharra

Butroe itsasadarren ibilbidea

Barrrikako itsaslabarrak

Billano

Muriola

Barrika

Meñakoz

Arrietara

Sopela

Barinatxe

Gorrondatxe

Larrabasterra

Butroe

Isuskitza



Burdinezko hesia

Betiko Getxo

Kostaldeko Getxo

Hezeguneen ibilaldiak

Punta Begoña

Getxo Barria

Urduliz

Berango

Leioa

Erandio

Getxo

Galea

Arrigunaga

Portu Zaharra

Ereaga

Andra Mari

Fadura

Areeta

Getxoko kultura- eta historia- aberastasuna, bost ibilalditan

Toponimia-ibilbideak 2008tik egiten dituzte Getxon, Bizarra Lepoan euskara elkarteak eta Udalak batera. 2016tik bost ibilbide finkatuta dituzte, toponimia, natura, kultura-ondarea eta historia ezagutzeko.

Azken urteotan, bost izan dira Getxon eskainitako zirkuituak, udalerriko iraganera eta orainaldira hurreratzeko. Honako hauek dira: Betiko Getxo, Getxo Barria, Kostaldeko Getxo, Hezeguneak eta Begoña jauregiko galeriak. Getxoko Udal Euskara Zerbitzuak eta Bizarra Lepoanek eskaini ohi dituzte bisita gidatuak apirilean, maiatzean, ekainean eta urrian. Halere, badago norberak egitea, eragile bien webguneetan badira-eta planoak, azalpenak, unitate didaktikoak eta, lehenengo hiru ibilbideen kasuan, Labayru fundazioagaz egindako bideoak ere.

BETIKO GETXO. Getxoren jatorria eta bertoko nekazaritzagunea ulertzeko ibilbide aproposa. Andra Mari elizatik abiatzen da, antzinako Getxo sendiaren monasteriotik. Arteaga eta Diliz estratetatik, Zientotxe errepidera atera eta Saratsaga baserria ezagut daiteke, 1622ko dorretxea zenaren izen berekoa. Bidea Askorri haitzera eta Gorrondatxe hondartzara heltzen da. Bertan industrializazio-garaiko hondakinak ikus daitezke, harri bihurtuta. Hur daude Aixerrrotako landak; 1956an estreinatu zen Nazioarteko Paella Txapelketa bertan. Sakuskune pasatuta, Tunelboka hondartzan Bilboko ur zikinak garbitzeko sarea itsasoratzen zen; hodieta jaisteko etxolak izan ziren malakateak: sei daude Getxon. Itsasargia pasatuta, Galeako gotorlekura heltzen da. Ondoren, O'Shea irlandarrak eraikitako Aixerrrotaren aurretik pasatu eta Aingeruaren etorbidetik Bentara heltzen da, baserriarren ermandadeko bileren gunera.

GETXO BARRIA. Getxo Barria Neguriren inguruko ibilaldia da. Izan ere, auzo hori XX. mendekoa da, guztiz berria. Neguriko Karmen elizan hasten da ibilbidea. Atxekolandetatik pasatu beharra dago, Begoña jauregiko galerien gainean amaitzen



Ibilaldiak ikertu dituzte Victoria Bengoa Biologia doktoreak, Josu Larrañaga filologoak eta Armando Llamosas ondare-adituak.

1649

urtekoa da Guardako Aingeruaren ermita, Bentaren atzean dagoena.

1903

urtean asmatu zuen Neguri izena Resurrección María de Azkuek, enkarguz. Euskaltzaindiaren lehenengo presidentea izan zen Azkue.

den kaletik. Hortik behera eskaileretatik egin daiteke, Areeta-ko pasealekua hartu eta kostatik Bizkaiko Zubiraino heltzeko.

KOSTALDEKO GETXO. Etxetxun hasita, Portu Zaharreko erreallitatea, toponimia eta ohiturak ezagutzeko aukera dago. Ondoren, kostaldetik Aixerrrotara arte doa bidea, Usategiko antzinako kanoi-bateriak eta Arrigunaga hondartza atzean utzita.

HEZEGUNEAK. Fadura izenak dioenez, padura zen inguru hori. Bertako kiroldegiko sarreran hasi eta Bolue erreka segitu beharra dago, bertako baserriak eta boluak edo errota ezagutzeko. Ondoren, Santa Coloma ermita ezagut daiteke.

BEGOÑAKO GALERIAK. Galeriak barrutik ezagutzeaz gainera, euren historia, kokapenaren zergatia, Ezkerraldearekiko lotura eta aurretik bertan zer zegoen azaltzen dute ibilbidean.

HONTZA EXTREM

DE HONTZAKO ABENTURA PAKETEA

ZATOZ!
EZ DA EDOZEIN PAREKOA...
NATURALITASUNEZ PAREGABEA BAIZIK!

Aisialdi, entretenimendu eta kirol abenturarik onena.
Tibetar zubiak, Tarzan lianak, sareak,
150 metro arteko tirolinak, arko tiroa, zuhaitzetako eskalada...

Adin guztietako publikoari zuzenduta.
Euskal Herriko bihotzean, zuegandik gertu!

633.468.947 • hontzaextrem.com
Oleta bidea • OTXANDIO • BIZKAIA

Landareez ikasteko eta gozatzeko

Gorlizko Turismo Bulegoak antolatzen duen Lore eta Landare Azoka zazpigarren ediziora ailegatu da daborduko. Apirilaren 8an egingo dute aurtengoa.

Aste santuaren osteko asteburuan egin ohi da, eta horregatik, Gorlizko Lore eta Landareen hitzorduak ez du edukitzen data finkorik. Oraingoan, apirilaren 8an egitea egokitu da, domekan. Goiz osoa hartuko du ekimenak, 10:00etatik 14:30era, Eliz plazan. Inguruko lorezaintza sektorea sustatzea da azokaren helburua, betiere naturarekiko baloreak eta natura bera zainduz.

Hainbat ekoizleek beteko dute plaza, euren produktuak erakutsiz eta eskainiz: loreak, landareak, zuhaitzak, hazi jangarriak, loreakaz egindako bitxiak, xaboiak eta bestelakoak. Horrez gainera, doako tailer bi emango dira 11:00etatik aurrera, adin denetako pertsonen parte hartzeko modukoak: batetik, Bizilore elkarteak eroandako loreen petaloakaz mandalak egiten ikasteko aukera egongo da; bestetik, Biodibertsitatea Erein tailerra egingo dute.

JAKOBA ERREKONDOREN BERBALDIA. 12:30ean, Jakoba Errekondok paisajista eta agronomo ezagunak berba egingo du Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretan: «Landareei buruzko zalantzak argitzen». Landareen zaintzaz hainbat dibulgazio-liburu idatzitakoa da Errekondo, bakarka edo elkarlanean. Azokan edukiko duen salmenta-gunean es-



Mota denetako loreak egongo dira eskuragarri Eliz plazako saltokietan.

Inguruko lorezaintza sektorea sustatzea da azokaren helburua

kuratu ahal izango dira liburu horiek, egileagaz zuzenean zalantza zehatzak argitzeaz gain.

Azokaren amaiera baino apur bat lehenago, 14:00etan, ekoizleek oparitutako lore, landare eta bestelako artikuluen zozketa egingo da erosleen artean.

ERREKLAMATU

Barroeta Aldamar, 6, 3 esk. 48001 BILBO • 944 027 596 • 688 651 944 • info@erreklamatu.com • www.erreklamatu.com

Zure hegaldia atzeratzeagatik erreklamatu gura duzu?



HEGALDIEN ATZERAPENEN KALTE-ORDAINAK

Hiru ordutik gorako hegaldi-atzerapena jasan baduzu, hegaldia bertan behera utzi badizute, hegazkinean sartzea galarazi badizute edota maletakaz arazoak eduki badituzu, kalte-ordainak jasotzeko aukera daukazu. Erreklamatu zerbitzaria (www.erreklamatu.com) arduratzen da hegaldietan izandako gorabeheren indemnizazioak kudeatzeaz.

Jende askok jasaten ditu hegaldien atzerapenak, eta momentuan kexatu egiten da normalean, baina gero ez du erreklamaziorik egiten, bidean aurkitzen dituen trabak handiegiak direlako. Orain dela urte dezenteko, Europako araudiak finkatu zituen erreklamazio horiek eskatzeko arauak. Erreklamatu.com zerbitzari-ko arduradunok oso erraz eta modu sinplean kudeatzen ditugu erreklamazioak; bezeroek dirua eskuan izaten dute epe laburrean.

Erreklamatu zerbitzariaren sortzaileak hiru gara: Xabier Sainz de la Maza leioaztarra eta Oscar Sanchez Setien eta Jon Ortiz Larruzea getxoztarra. Hirurok abokatuak gara eta Bilbon daukagu bulegoa. Kexaren bat heltzen zaigunean, martxan ipintzen gara. Bezeroen ontziratze-txartelaren eta NANaren fotokopiak baino ez ditugu behar, eta hortik aurrera gu arduratzen gara prozesu guztiaz. Horregaz demanda bideratzen dugu, hori delako biderik azkarrena eta eragin-korrena. Konpainiek, normalean, badakite kalte-ordainak ordaindu behar dituztela eta, horrenbestez, gehienetan akordiora heltzen gara eurek. Bezeroek kalte-ordainak jasotzen dituztenean, guk horren %18 eskuratzen dugu.

Gainera, etxetik mugitu barik egin daiteke dena; gure webgunearen bidez zuzenean gugaz kontaktuan jartzen, info@erreklamatu.com helbide elektronikoa erabiliz, edo gure telefono-zenbakietako



ERREKLAMATU

Kalte-ordainik ez lortzekotan, gure zerbitzuak ez du ezelako kosturik bezeroarentzat

batera (944 027 596, 688 651 944) deituz. Bestela, gura izanez gero, gure bulegora (Barroeta Aldamar kalea, 6, 3. eskuma, Bilbo) etor zaitezke. Batez ere Bizkaian egiten dugu lan, eta zerbitzua euskaraz zein gaztelaniaz eskaintzen dugun bakarrak gara.

Azken hamar urteetako atzerapenak erreklama daitezke, horren dokumentazioa eskuragarri izanez gero. Bezeroaren eta gure arteko harreman zuzena bermatzen dugu. Hala, eurek beren kasua kontatu eta guk indemnizazioa jasotzeko aukera dagoen edo ez aztertzen dugu, zalantza guztiak argituz.

Idemnizazioak distantziaren arabera izaten dira. Europako araudiak baremo batzuk ipini ditu; horrenbestez, kalte-ordainak 250, 400 edo 600 eurokoak izan daitezke, aireportu bien arteko distantzia kontuan hartuta.

HONAKO HAUEK DIRA GUTXIENEN KALTE-ORDAINAK:

- 1.500 kilometro baino gutxiagoko hegaldietan, 250 euro bidaiari bakoitzeko.
- 1.500 eta 3.500 kilometro arteko hegaldietan, 400 euro bidaiari bakoitzeko.
- 3.500 kilometro baino gehiagoko hegaldietan, 600 euro bidaiari bakoitzeko.

Esan dugun legez, hiru ordutik gorako atzerapenak daudenean egin daiteke erreklamazioa, baita hegaldia bertan behera geratzen bada ere. Maleten kasuan ere, konpainiak galdu edo berandu bueltatzen baditu kalte-ordainak lortzeko aukera dago.

Erreklamazioa egin ostean kalte-ordainik ez lortzekotan, gure zerbitzuak ez du ezelako kosturik bezeroarentzat.

Kondaira izatetik zinema-aretora



Antzerkia

Martxoak 15, eguena
Hamaika kolore
18:00 | Algortako umeen liburutegia | Getxo
Itziar Gamero ipuin-kontalariagaz. 3 urtetik gorako umeentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

Ipuin-kontalaria helduentzat
18:30 | Altzagako liburutegia | Erandio
Martxoaren 8ko ekitaldien barruan. Anabel Murogaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Martxoak 16, barikua
Irakurketa antzeztua
18:30 | Altzagako liburutegia | Erandio
Martxoaren 8ko ekitaldien barruan. *El latir de la mina* liburua aukeratu dute antzezipen-lanerako. Gaztelaniaz. Doan.

Martxoak 17, zapatua
Doro Zobaranen ipuinak
18:30 | Sertutxena eraikina | Gortiz
Euskaraz. Sarrera, doan.

Martxoak 18, domeka
Balio magikoak
18:00 | Antzokia | Berango
Liuba, Oliver eta Eva magoakaz. Denontzat. Euskaraz. Sarrera: 4 euro.

Martxoak 20, martitzena
Ni ta punto
19:30 | Algortako kultur etxea | Getxo
Martxoaren 8ko ekitaldien barruan. Beatriz Egiazabal ipuin-kontalariagaz. Euskaraz. Doan.

Batzarrak

Martxoak 16, barikua
Anton Garai kortsarioa
19:00 | Itsas Estazioa | Plentzia
Urrian egin gura dute ikuskizuna.

LEIOA | Errementari filma Paul Urkijo
Alijo zinemagilearen lehenbiziko film luzea martxoaren 2an estreinatu zuten zinema-aretoetan; *Patxi Errementaria* euskal ipuin tradizionalan oinarrituta dago. Martxoaren 17tik 19ra arte, Kultur Leioako entzungelan ikusteko aukera egongo da: lehenengo egun bietan euskaraz proiektatuko dute, eta hirugarrenean, gaztelaniaz. Saio denak 20:00etan izango dira, eta sarrerak 4,50 euroan (Ikusleen eguna: 3,50 euro) egongo dira. Kultur Leioako arduradunek gogorarazi dutenez, filma 12 urtetik gorako ikusleentzat da.

Berbaldiak

Martxoak 19, astelehena
Euskarak 365 egun ekimenaren aurkezpena
19:00 | Itsas Estazioa | Plentzia
Kike Amonarrizegaz. Euskaraz. Sarrera, doan.

Martxoak 21, eguaztena
Harkaitz Canogaz hitzordua
19:00 | Kasinoa | Plentzia
Literohitura elkarteak antolatuta. *Twist* liburuaren gainean berba egingo du idazleak. Euskaraz. Doan.

Bertsolaritza

Martxoak 16, barikua
Uribe Kostako txapelketako bigarren kanporaketa
19:00 | Algortako hainbat taberna | Getxo
Lehenengo saioan, Imanol Uria, Pello Etxebarria, Maddalen Ruesgas eta Peru de Pedro bertsolariek parte hartuko dute, 19:00etan, Saniko tabernan. Bigarrenean, Peru Vidal, Naroa Torralba, Haritz Urrutikoetxea eta Aritz Landeta bertsolariek kantatuko dute, 20:00etan, Tunel Boca tabernan. Eta hirugarren saioan, azkenik, Arrate Illaro, Itxaso Paya, Ekaitz Larrazabal *Katxo* eta Maider Barañano bertsolariak izango dira, 21:00etan, Villamonte tabernan.

Erakusketak

Martxoaren 18ra arte
Sokatira
Rekalde Aretoa | Bilbo
Barriet 2018 egitasmoaren barruan. Marta Zelaia Aranbaltza artista urduliztarrak egindako tapiz handia ikusbide izango da. Sarrera, doan.

Martxoaren 23ra arte
Emakumeen begiradak
Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Martxoaren 8ko ekitaldien barruan. Sarrera, doan.

Martxoaren 24ra arte
Getxo y otras cosas
Algortako kultur etxea | Getxo
José Antonio Arberasen olio-margoak. Doan.

Marcas: cuerpos reales
Algortako kultur etxea | Getxo
Amaia Aparicioren argazkiak. Sarrera, doan.

Martxoaren 25era arte
Navajo-divertido
Torrene Aretoa (Algorta) | Getxo
Matxalen Oñateren pinturak eta eskulturak. Doan.

Musika

Martxoak 15, eguena
Urban pop-taldea
20:00 | Jolasurre taberna (Algorta) | Getxo
Getxon Zuzenean zirkuitua. Sarrera, doan.

Martxoak 17, zapatua
Jianing Kong piano-jolea
19:30 | Areetako musika-eskola | Getxo
Paloma O'Shea Nazioarteko Piano Lehiaketan saritu dute. Sarrera: 10 euro.

The Old Timey String Band
22:00 | The Piper's taberna (Algorta) | Getxo
San Patrizio Eguneke folk-kontzertua. Doan.

Martxoak 18, domeka
Inprobisazio-saioa
19:30 | El Comercio taberna (Areeta) | Getxo
Areetako musika-eskolako jazz-taldeagaz. Doan.

Martxoak 19, astelehena
Erandioko musika-eskolako ikasleen entzunaldia
18:30 | Musika-eskola | Erandio
Biolina eta biolontxelo joko dituzte. Doan.

Zinema

Martxoak 15, eguena
Figuras ocultas
18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Genero-ikuspegiko zinema. Sarrera, doan.

Lapikoetatik ateratako usain gozoez beteko dira plazako bazterrak



PLENTZIA | Putxera Eguna Zapatu honetan, martxoaren 17an, egingo dute, Eleiz plazan; izen-ematea goizeko 10:00etan izango da.

Berango Kantari
Lehenengo urteurrena



Martxoak 24, zapatua
13:00 Poteo musikatua, udal-pilotalekuan.
14:30 Umeentzako herri-bazkaria, udal-pilotalekuan.
15:30 Helduentzako herri-bazkaria, udal-pilotalekuan.
19:30 Berango Kantari eta Taberna Ibiltaria taldeen kalejira.

Bazkarirako txartelak salgai:
Frontoi eta Nebarrebak tabernetan. Salneurria: helduek 10 euro ordaindu beharko dituzte; umeentzat, doan.

Martxoak 16, barikua
La suerte de los Logan
21:00 | Areetako musika-eskola | Getxo
Zine Kluba. 7 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,90 euro. Proiekzioaren ostean, mahai-ingurua egingo dute.

Martxoak 17, zapatua
Transformers
17:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

Una familia feliz
18:00 | Kultur etxea | Urduliz
Denontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

El fundador
20:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

Los archivos del Pentágono
20:15 | Kultur etxea | Urduliz
Pelikula 7 urtetik gorakoentzat da. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

Martxoak 17 eta 18
Harpetarra
17:30 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Umeentzat. Euskaraz. Sarrera: 3,50 euro.

Martxoak 18, domeka
Los pitufos: la aldea escondida
17:00 | Areetako musika-eskola | Getxo
Igandeko Haur Zinea. Denontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,10 euro.

Axel heroï txikia
18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Denontzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

Martxoak 21, eguaztena
Handia
19:00 | Azebarri kultur elkarte | Getxo
Euskaraz. Sarrera, doan.

AIXERROTA BHI

euskaraz bizi nahi dut

IKASTETXEA

• DBH: B eta D ereduak + ikasgaiak ingelesez

DBH 1: Natur zientziak (Euskara/English)

DBH 2: Matematika (Euskara/English)

DBH 3: Fisika eta Kimika (Euskara/English)

DBH 4: Matematika eta Musika (Euskara/English)

• BATXILLERGOA: D ereduak + ikasgaiak ingelesez

• Zientzia modalitatea

• Giza eta Gizarte zientzietako modalitatea

• SAT/ZIG: Zereginak ikasteko gela

INFORMAZIO + Santa Marina Haitza 14 • 48993 GETXO • 944 911 786 • www.aixerrota.hezkuntza.net

«Ez naiz erabakiak hartzen dituen horietakoa; bizitzak eroaten nau gauza bat edo beste egitera»

Algortan hiru hilabete daroatza Afrika Bibang abeslariak; Euskal Herrian geratzeko asmoagaz itzuli da. Horrez gainera, aspaldiko partez, euskarazko abesti bat egin du: *Begira* da kanta berri horren izenburua. Hilabete barru inguru argitaratuko du, Internet bidez.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Afrika Bibang Maquina (Algorta, 1975) abeslaria Ekuatore Gineako etorkinen alaba da, euskalduna. A ereduari egin zituen ikasketak, baina 15-16 urte zituenean euskara ikasten hasi zen. 1993an hasi zuen bere musika-ibilbidea; hainbat taldetan ibili ostean, *Entzun* euskarazko diskoa plazaratu zuen, 2004an. Urte luzez Euskal Herritik eta euskal musikatik kanpo egon ostean, sorterrira itzuli eta euskarazko kanta bat grabatu du berriro.

Zenbat urte igaro dira euskarazko kantarik egiten ez zenuenetik? Hamalau urtez ibili naiz munduan zehar bueltak ematen eta, Algortara itzuli nintzenean, dena zelan aldatu den eta gu geu ere zelan aldatu garen sumatu nuen; denbora aurrera doa, eten barik. Gauzak horrela, *Begira* izeneko abestia grabatzea erabaki nuen; buruan neukan eta gura nuen atera. Datorren hilabetean edo plazaratuko dugu.

Grabatu duzun kanta berria entzunda esan daiteke Afrika euskal musikara itzuli dela? Baietz esan daiteke. Hala ere, gaur egun proiektu asko dauzkat eskuen artean: oraindino jarraitzen dut ingelesez abesten eta bidaiatzen The Johnny Freelance Experience taldeagaz. Baina, lehen esan dudanean, kanta atera zitzaidan eta neure buruari esan nion: «Grabatu egingo dugu, ia zer gertatzen den». Hala ere, ez daukat ezertarako asmorik; nik musika egin gura dut, eta deitzen banaute zer edo zer egiteko, egin egingo dut.

Nire asmoa da horrelako kantak bururatzen zaizkidan heinean, horiek grabatu eta plazaratzen joatea. Gainera, gaur egun ez da beharrezkoa disko bat grabatzea; Interneten bidez joan zaitezke abestiak argitaratzen. Agian, bospasei kanta dauzkadanean maketa edo disko bat grabatuko dut; hori ikusiko dugu. Bitartean, *Begira* abestia kaleratuko dut jendeak entzute-



Begira

Hamalau urteren ostean, Afrika Bibang euskaraz egin duen kanta berria da *Begira*; hilabete barru edo plazaratuko dute, Internet bidez. Algortarra atzera begira ipini da: ihes egindako denbora eta urte guzti hauetan gauzak zelan aldatu diren kontatzen du kanta horretan.

ko eta ikusteko berriro euskaraz abesten hasi naizela, apurka mundu honetan burua sartuz berriro. Baina, ezelako asmo zehatz barik. Horretarako ere nahiko hippya naiz; haizeagaz batera mugitu ohi naiz.

Zer esango zenieke zu euskaraz abesten entzuten zintuzten pertsona horiei guztiei? Esan gura nieke *Begira* kanta nire barru-barrutik atera den gauza bat dela. Erabaki nuen Euskal Herrira bueltatzeko momentua zela eta hemen nengoela, halako batean, paseo bat ematera joan nintzen: orduantxe ikusi nuen dena zelan aldatu den. Oso une berezia izan zen niretzat. Abestian kontatzen dut zelan sentitu nintzen momentu horretan; eta pentsatzen dut, adin batera iritsita, denok sentituko garela horrela. Izan ere, eman dezake hemendik joan nintzenetik denbora gutxi igaro dela, baina urte asko igaro dira eta asko aldatu dira gauzak. Sentimenduzko une bat izan zen. Bestalde, abestia *Begira* izan arren, ez dauka zerikusirik *Entzun* nire bakarkako lanagaz.

Azken hamalau urteetan euskal musikagintzatik kanpo ibili zara. Zertan ibili zara denbora horretan guztian? Abesten eta bidaiatzen ibili naiz. Kar, kar. Beste hizkuntza batzuetan izan arren, beti egon izan naiz musikaren munduan. Euskara alde batera utzi nuen eta, orain, oster ere bueltan naiz... Ingelesez ere abesten jarraitzen dut. Baina, momentuz, kanta bakarra baino ez dut grabatu euskaraz; ikusiko dugu zelan doazen gauzak.

Zelan erabaki zenuen mailetak egin eta bidaiatzen hastea? Normalean erabakiak ez ditut nik hartzen; bizitzak eroaten zaitu gauza bat edo bestea egitera. Berbarako Bartzelonara joan nintzen eta, han, hainbat lagun ezagutu nituen eta hemendik hara ibili gara urte hauetan guztietan: Varsovian, Japonian, Madrilan,

Kantak bururatu ahala grabatu gura ditut, Internetek aukera ematen du eta; orain ez da beharrezkoa disko oso bat egitea.





AFRIKA BIBANGK UTZIA

Londresen, Parisen, Beiruten... egon naiz abesten. Euskal Herria txiki geratu zitzaidan; hemendik alde egitea erabaki nuen orduan. Gauza batek bestea ekarri du eta gelditu barik ibili naiz munduan zehar.

Joan aurretik *Entzun* diskoa grabatu zenuen. Zelan sortu zen proiektua? Aurretik beste talde batzuetan ibilita nengoen; besteak beste Etsaiak taldeagaz. Ke No Falte taldean ere egon nintzen. Halako batean, grabatuta neuzkan kanta batzuk eroan nizkion Fermin Muguruza-ri, eta hari gustatu egin zitzaizkion. Ferminnek ekoiztu zuen *Entzun* (2004, Metak) diskoa; oso laguna daukat. *Brigadistak Sound System* lanean ere luzaroan ibili ginen elkarlanean Fermin eta biok.

Euskal Herria txiki geratu zitzaion Afrikari. Hamalau urtez ibili da bidaiatzen eta gaztelaniaz zein ingelesez abesten.

Zer gurago duzu, talde batean ahotsa ipintzea edo bakarlari jardutea? Bizitzak momentu bakoitzean eskatzen didana; nik beti egiten ditut gauzak horrela, ezelako planifikazio barik. Esperientzia ezberdinak dira: bakarrik kantatzen duzunean arreta guztia zugan ipintzen dute entzuleek; talde batean ahotsa ipintzea bestelako kontua da. Baina kantatzen nagoen bitartean, ona da. Bakarlari izatea politagoa da, agian; baina arriskutsua ere bai.

Zer da musika zuretzat? Niretzat dena da musika: jarduera horretaz bizi naiz, entzun egiten dut egunero, taberna batera sartzen naizenean oso garrantzitsua da niretzat ze musika ipintzen duten... Momentu guztietan daukat buruan; nire bizitza da. ◀

Estilo askotako taldeetan ibilitakoa



Ke no falte

Reggaea ulertzeko beste modu bat erakutsi zuen 1995ean sortutako talde santutxuarrak. Lau urtez ehunka gazte dantzan ipini zituzten, euren doinuei esker. 1999an atseden hartzea erabaki zuten.



Etsaiak

Etsaiak 1987an Lekeition sortu zen hardcore-punk taldea da. *Bakearen guda*, *Askatasun taupada*, *Zuzenean* eta *Kaos* diskoetan parte hartu zuen Afrikak.



Calima

Bartzelonako Garraf eskualdean sortu zen Calima Colores legez ere ezaguna den taldea, 2004an. Flamenkoa, jazz, runba, hip-hopa, bossa eta halako d oinuak jotzen dituzte.



The Johnny Freelance Experience

Afrika Bibangek, Nicholas Dominic Talvolak eta Didi Lezek osatzen dute Ibizan sortutako taldea. Soul-doinuak abesten ditu algortarrak ingelesez, besteak beste.

Kirolaz gozatzeko hamaika aukera



Haszten elkarteak kirol-hastapen egokitu eta inklusiboan jarduten du. © HASZTEN

Uribe Kostako neska-mutilek eta gazteek olgatzeko eta kirolean hobetzeko aukera handia dute datorren eskola-oporraldian, Aste Santuan eta Pazko astean. Inguruko klubek 19 campus antolatu dituzte, nork gurago duen modalitatea eskainita.

ÍÑIGO FERNÁNDEZ DE MARTIKORENA ►

Uribe Kostan, gutxienez, hogeiki kirol-campus eskainiko dituzte zenbait kirol-klubek datozen Aste Santuan eta Pazko astean. Halere, Gorkizko Udalak sustatutako futbol-campusen izen-emate datak pasatu direnez, hemeretzi dira eskualdeko neska-mutilek eta gazteek aukeratu dauzkaten olgatzeko eta teknifikazio-saioak, gaur egun klubek zabaldu dutenaren arabera. Ohi legez, gustu denetarako kirol-eskaintza izango da, honako modalitate hauetan: gimnastika erritmikoa, askotariko kirola, saskibaloia, igeriketa, tenisa, futbola, irristaketa, boleibola, eskubaloia, belar-hockeya eta bela, besteak beste.

Gainera, aipatzeko modukoak dira ere, xakea tresna pedagogiko eta sozializatzaile modura Getxo Xake Klubak antola-

Kirol inklusiboa

Gobelan, Hasztenek, Getxoko Saskibaloia Taldeak eta Getxo Azkarrenak campus inklusiboa egingo dute.

Eskubaloia

Lehenengo aldiz, Urduliz Eskubaloia Aste Santuan egingo du neska-mutil eta gazteentzako kirol-topaketa.

tu duen campusa, eta Haszten elkarteak Getxoko Saskibaloia Taldeagaz eta Getxo Azkarrenak irristaketa-elkarteagaz batera proposatu duen egokitutako inklusio-campus. Kirol-topaketa horiek eskolako opor-garaian antolatzen dira udalerriko umeei aisialdirako aukera osasungarriak eskaintzeko eta gurasoen kontziliazioa errazteko helburuagaz. Getxo udalerrian, klub gehienek jardun dute Getxo Kirolak udal erakundeagaz elkar-lanean, hamalau campus osatzeko. Hala, horien gainean argibide gehiago topa daiteke Getxo Kirolakeko webgunean.

PILOTA ASTINTZEN IKASTEKO. Askotariko eskaintza dagoen arren, futbolariek segitzen du izaten campus gehien daukan kirola. Gorkizko topaketaz gainera, beste bost izango dira eskualdean: Itzurbaltzeta/Romon, Algortan, Astrabuduan, Leioan eta Urdulizen. Azken bi horiek Iñaki Sáez Athleticeko jokari eta entrenatzaile ohiaren eta Sabin Merino Athleticeko gaur egungo aurrelariaren babesa daukate, hurrenez hurren. Leioako Kirol Elkarteak antolatzaileek nabarmendu dutenez, «azken urteotan edukitako arrakasta eta harrera zabala direla eta», aurtan ere Iñaki Sáez campusak erabiliko ditu Leioako Sarriena kirol-instalazioak. Helburuak neska-mutilen fut-

Erandion
“Euskaraldia”
ekimena
dinamizatzen
LAN ESKAINTZA

EZINBESTEKO BALDINTZAK:

Erandion euskararen aldeko jarrerak aktibatzen
(herriko elkarteak, kolektiboak, enpresak, langileak)
DINAMIZATZAILE BAT behar dugu lanaldi erdian.

Berbots elkartearen bitartez udalarekin batera aritzeko
(apiriletik abendura bitartean)

Informazioa:
berbots@gmail.com

Erandion eta eskualdeko erakundeak

Euskaraldia taldeak

Herriaren eta enpresaren gaitasuna

Euskaraldia taldeak

Euskaraldia taldeak

Euskaraldia taldeak

Euskaraldia taldeak

Euskaraldia taldeak

Euskaraldia taldeak

Curriculum-aiturkako azken eguna:
Martxoaren 26a



Uribe Kostako kirol-campusetan parte hartzeko argibideak

KLUBA	JARDUERA	OHARRAK	KONTAKTUA
Getxo Gimnasia Erritmikoko Kluba	Gimnasia erritmikoa, Faduran.	5-18 urte. Hilaren 26tik apirilaren 6ra. 08:30-14:00. 84-160 €.	club_ritmica_getxo@hotmail.com 685 545 032
Getxo Irristan kirol-kluba	Patin-hockeya eta irristaketako hastapena, Faduran.	4-11 urte. Apirilaren 3tik 6ra. 09:00-14:00. 60 €	klub@getxoirristan.com 670 733 824
Getxo Saskibaloia Taldea	Saskibaloia, Gobelan.	6-14 urte. Hilaren 26tik apirilaren 6ra. 08:30-14:30. 25-140 €.	getxosaski@gmail.com 657 773 523
Getxo Igeriketa eta Waterpolo Taldea	Askotariko kirola, igeriketa eta tailerrak, Faduran.	4-12 urte. Hilaren 26tik apirilaren 6ra. 08:30-14:30. 20-100 €.	urkogiw@gmail.com 651 703 887
Getxoko Hondartzak tenis-kluba	Askotariko kirola, eta tenisa, Faduran.	6-18 urte. Hilaren 26tik apirilaren 6ra. 09:00-14:00. 90-190 €	tenisplayasdegetxo@gmail.com 685 751 688
Fadura Tenis Kluba	Tenis-teknifikazioa, Faduran.	8-18 urte. Hilaren 26tik apirilaren 6ra. 09:30-14:30. 130-240€.	tenisfadura@gmail.com 609 400 742
Arenas-Romo Kirol Kluba	Futbola, Gobelan.	5-14 urte. Hilaren 26tik apirilaren 6ra. 08:30-14:30. 75-100 €.	Romoarenas.com 657 268 606
Getxo Azkarrenak Irriestaketa kirol-kluba	Askotariko kirola, eta irriestaketa, Gobelan.	3-12 urte. Hilaren 26tik apirilaren 6ra. 08:30-14:30. 25-130 €.	ander.i@clubpatinajelineagetxo.com 664 570 994
Getxo Aixerrota Boleibol kirol-taldea	Boleibola, Faduran.	8-15 urte. Hilaren 26tik apirilaren 6ra. 09:30-13:30. 70-130 €.	campusvoleigetxo@gmail.com 654 738 779
Getxo Show irriestaketa-kluba	Irriestaketa, Andra Marin.	4-16 urte. Hilaren 26tik apirilaren 6ra. 09:30-13:30. 15-105 €.	info@cpshowgetxo.com 615 501 624
Getxo Xake Kluba	Xakea, tresna pedagogikoa, Gobelan.	6-14 urte. Hilaren 26tik apirilaren 6ra. Txanda bi: 08:30-13:00; 15:00-18:00. 30-108 €.	info@damagaztea.com 688 677 874
Haszten, Getxo Saskibaloia eta Getxo Azkarrenak	Inklusio-kirol egokitua, Gobelan.	6-20 urte. Hilaren 26tik apirilaren 6ra. 09:00-14:00. 20 € eguneko.	hasztenkirola@gmail.com 699 609 588
Getxo kirol-kluba	Futbola, Faduran.	5-14 urte. Hilaren 26tik apirilaren 6ra. 08:00-14:00. 20-120 €.	campus.getxofutbola@gmail.com 615 982 663
Munduari Itzulua bela-kluba	Belako hastapena, Arriluzen.	8-15 urte. Txanda bi: hilaren 26tik 30era; apirilaren 2tik 6ra. 10:00-14:00. 90-110 €.	info@pakea.info 944 913 596 / 944 916 632
Urduliz Futbol Taldea - Sabin Merino Campusa	Futbola, Iparralden.	6-14 urte. Txanda bi: hilaren 26tik 28ra; apirilaren 3tik 6ra. 09:00-14:00. 70-170 €.	campussabinmerino@gmail.com 667 079 356
Urduliz Eskubaloia	Askotariko kirola eta eskubaloia, Iparralden.	6-12 urte. Txanda bi: Hilaren 26tik 28ra; apirilaren 3tik 6ra. 09:00-14:00. 45-90 €.	Urduliz.com urduliz@urduliz.com 692 705 161
Astrabuduako Futbol Taldea	Futbola, San Lorentzon.	5-14 urte. Txanda bi: Hilaren 26tik 28ra; apirilaren 3tik 6ra. 09:00-14:00. 45-75 €.	Astrabuduako.com 615 729 080
Jolaseta kirol-kluba	Belar-hockeya, Jolasetan.	8-12 urte. Apirilaren 3tik 6ra. 09:30-17:30. 198 €.	Jolaseta.com 944 911 600
Leioako Kirol Elkarte - Iñaki Sáez campusa	Futbola, Sarrienan.	4-14 urte. Txanda bi: hilaren 26tik 28ra; apirilaren 3tik 6ra. 08:00-14:30. 70-200 €.	campusleioa@yahoo.es 675 533 528

bolari-trebetasunak hobetzea eta kirol horretaz gozatzea dira eskolako oporretan. Horretarako, «profesional izugarri onek» jardungo dute; tartean Iñaki Sáez berak laguntza eskainiko du.

URDULIZEN CAMPUS BI. Sabin Merinoren campusean ere, ja-goleek dagokien titulazioa izango dute eta atezaintzako entrenamendu bereziak egongo dira. Gainera, umeek txango bat egingo dute beste campus bateko kideen aurka jokatzeko. Sabin Merino jokalaria sinatutako kamiseta bat zozkatuko dute umeen artean, eta ohikoa izaten da jokalaria urduliztarrak neska-mutilei bisitaren bat egitea.

Urdulizen bertan beste berritasun bat egongo da aurren. Lehenengo aldiz, Urduliz Eskubaloia kirol-elkarteak Aste Santuagaz batera egingo du neska-mutil eta gazteentzako kirol-topaketa. Klubak gidatzen duen Uribe Eskubaloia Eskolak udan bakarrik egin ditu horrelakoak orain arte. Hala, askotariko kirolaren aldeko apustua egin dute Aste Santu honetarako, eskubaloia ez ezik, badminton, heziketa, dachball eta bestelako kirolak ere eskaintzeko. Modu berean, trebetasunak lantzeko hainbat tailer eta zenbait jolas ere izango dira, antolatzaileek daborduko aurreratu dutenez. ◀

KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa. 84 (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94 464 23 64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.

GETXO | Sabotajea Ibarbengoan

Erakundeek erasoia salatu dute, Tosukoek legitimatu

Hainbat ezezagunek Getxoko Ibarbengoako metro-parkingaren lanei eraso egin zieten joan den hilaren 9ko eta 10eko gauean, Ertzaintzaren arabera. Eusko Jaurlaritzak, Euskal Trenbide Sareak eta Imanol Landa Getxoko alkateak gaitzetsi egin dute ekintza hori. Tosu Betirako taldeak zabaldu duenez, «ez dauka zerikusirik» erasoagaz, baina babestu egin du. Getxoko Auzokideok elkarteak, aldiz, haizeari leporatu dio gertatutakoa.



GORLIZ | Gizarteratzeko plana

Bazterkeria egoeran dauden 30 herritar laneratzeko plana abiarazi du Gortizko Udalak. Interesatuak hilaren 28ra arte eman dezakete izena.

GETXO | Aurrekontu parte-hartzaileak

Udalerriko parkeak eta lorategiak hobetzeko proposamenak jaso ditu boto gehien aurrekontu parte-hartzaileen bigarren fasean.

GETXO | Arrauna

Raspas taldearen garaipenak goraipatu ditu Getxo Kirolak elkarteak. Horretarako, omenaldia egin zieten kirolariei Faduran, joan den egunean.

GETXO | Neguko Joko Paralinpikoak

Jon Santacana eskiatzaile getxoztarak zilarrezko domina irabazi du Hego Koreako Joko Paralinpikoetan, Miguel Galindo bere gidariagaz batera.

URIBE KOSTA | XXIV. BBK sariketa

Eskualdeko bertsolariek irabazi dute finalerako txartela


Hilaren 13an jokatu zen Sopelako Ander Deuna ikastolan XXIV. BBK sariketako azken finalaurrekoa. Leire Garatxenak gidatuta, kantuan jardun ziren Hego Uribe eta Uribe Kostako bertsolariak; azken horiek irabazi zuten.



ERANDIO | Hildako gorpuak Ibaizabalen

Azken astean hildako bi agertu dira itsasadarrean, Erandio parean

Martxoaren 8an eta 11n emakume baten eta gizon baten gorpu bana aurkitu dute Ibaizabalen, Erandio aldean. Ertzaintza ikertzen dabil zendutako gizon-emakumeen heriotzak zer dela eta gertatu diren.



SARE HERRITARRA | Irantzu Gallastegi preso berangoztarraren egoera

«Euskal emakume preso denak etxetik urrun eta bakartuta daude, eta hainbat eskubide urratu dizkiete»



GETXOKO EH BILDU | Lehenengo sektorearen azterketa

«Egin dezala Udalak lehenengo sektorea garatzearen aldeko apustua, Getxok ere ezinbestekoa du»

4 hilabete

Erandioko kiroldegietako Bi Sport enpresako langileek 125 egun baino gehiago daroatzate greba mugagabeen, lan-baldintzak «duindu eta hobetu» ahal izateko.

«Emakumeok* planto», bideoan



Uribe Kostako mugimendu feministak greba laburtu du, bideoan.



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a - 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Idoia Lorente
Erredakzio-burua: Unai Brea
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena, Esti Garcia
Argazkiak: Hodei Torres
Testuen orrazketa: Jon Gastelurrutia
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa: Ziortza Merino, Idoia Ibarluzea
Kolaboratzaileak: Alazne Palacios, Kerman Santiago, Asier Barruetabeña
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 8.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

HIRUKA lagunen txokoa

Non dago? Lehiaketa

Urdaibai Bird Center guneari esker, familia osoak plan horretaz gozatzeko sarrerak zozkatuko ditugu

Bertako dendan deskontua eta ume eta helduentzako sarrera bikoitzak lortu gura badituzu, martxoaren 22a (eguna) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.



Martxoko saria



Anima Te Getxo komertzioari esker, infusio bero-beroak hartzeko sorta

Komertzio horren ekimenez, sari hau zozkatuko dugu HIRUKA lagun eta bazkide denen artean.

Zozketan parte hartzeko, bidali martxoaren 31 (zapatua) baino lehenago zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKA lagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

			2			5		
								3
8			9	4			2	
9	8		6			2	3	
				3				7
		7					8	
				2		4		
4		6	7		1			8
7	1							

							8	
		6	4	8				
4					7		2	5
		9	3					
	1					3		8
2			1	7				
			8					
7	2							1
9		5		1				3

Soluzioak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

8	9	2	7	1	7	5	8	6
1	6	8	3	9	5	4	2	7
4	5	7	5	9	2	8	1	3
6	5	6	8	7	1	3	4	2
8	3	4	6	9	2	7	5	1
2	1	7	5	4	3	6	9	8
5	2	1	7	3	9	8	6	4
7	3	7	1	2	5	4	6	8
3	7	2	9	5	1	4	8	6

2	9	6	4	8	5	3	1	7
8	5	3	1	6	7	9	2	4
1	7	4	9	2	3	8	6	5
6	8	9	2	5	4	7	3	1
7	4	1	6	3	8	5	2	9
5	3	2	7	1	9	4	8	6
6	5	1	9	4	3	7	2	8
3	6	8	5	7	1	2	4	9
3	7	9	2	6	8	5	1	4

Hitza emanda

Laguntza

Batzuetan okertu
ohi zaigu eguna,
besteetan premian
daukagu laguna;
zer eskatu, zer eman...
duda ezaguna;
bihotzez laguntzea
da gura duguna!



PAULE LOIZAGA LEGARRA
Sopela

ALBE
Algortako Bertsolari Eskola

Lehen/Orain **Plentzia** 1903



ITURRIA: EZEZAGUNA



Erretratua **Leire Olan Laraudogoitia** Aktorea

20 urtegaraz antzerki-klaseak jasotzea erabaki zuen Leire Olan armintzarrak. Ordutik, hamaika proiektutan ibili da lanean; antzerkian, zineman zein telebistan.

TESTUA: KERMAN SANTIAGO ALKORTA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Unibertsitatean Zuzenbidea ikasten hasi zen, baina egia esanda 18 urtegaraz zer egin argi ez zeukala aitortu digu Olanek (Lemoiz, 1974). Karrera erdian antzerki-tailer batean sartu eta bere bokazioagaz topo egin zuen. 1997. urtean diplomatura eskuratu zuen Getxoko Antzerki Eskolan, eta 1999an lehen pausoak eman zituen antzerkian, *Blue* obran.

Hogei obra baino gehiago interpretatu ditu Euskal Herrian, baita etxetik kanpo ere, Madrilera emigratu baitzuen urte birako. «Egin ditudan gauza garrantzitsuenak Madrilen nengoela egin ditut. Besteak beste *Medea* obra antzeztu nuen, Meridako Anfiteatroan, Tomaz Pandur zuzendari esloveniarragaz».

«Gauza garrantzitsuenak Madrilen nengoela egin ditut; besteak beste *Medea* antzeztu nuen Meridako Anfiteatroan»

Antzerkian ez ezik, telebistan ere ikusi dugu. *Goenkalen* iraupen laburreko pertsonaia bi jokatzeaz aparte, *Los hombres de Paco* telesail ospetsuan parte hartu zuen. Publizitate lanak ere egin ditu, Euskaltelentzat besteak beste. Zinemari dago-kionez, film laburrak eta pelikulak grabatu ditu: «*La Causa de Kripán* pelikulan parte hartu nuen; hori da, beharbada, egin dudana ezagunena», adierazi digu.

Antzezteaz gain, obrak idatzi ere egiten ditu Olanek. 2008. urtean, *Katastrofen!* antzerki konpainia sortu zuen Jone Garcia lankideagaz batera. «Oso garrantzitsua da guretzat gure produktua garatu ahal izatea; obrak sortzeko askatasun osoa daukagu, generoa edo hizkuntza hautatzerakoan, esaterako». Gaur egun, *Neopreno* umore beltzezko komedia antzezten dabilta. ◀

